

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
1. Latinaren elementu fonetiko, morfologiko eta sintaktikoak identifikatzea eta latinez idatzitako esaldi eta testu soil-soilak ulertzea eta itzultzea, Erroma klasikoko errealitate soziokulturalaren berri jakin eta interpretatzeko.	<p>1.1. Latinaren alfabetoa eta egitura ezagutzea.</p> <p>1.2. Sustantiboen deklinazioak ezagutzea (1. deklinabidea).</p> <p>1.3. Aditza: Orainaldia ezagutzea.</p> <p>1.4. Perpausaren hitz-ordena identifikatzea.</p> <p>1.5. Esaldi motz eta errazak itzultzea.</p>
2. Latinaren jatorria eta bilakaera era orokorrean ezagutzea.	<p>2.1. Indoeuropar hizkuntzaren sailkapena ezagutzea.</p> <p>2.2. Hizkuntza erromanikoen sortze eta bilakatzeko prozesuak aztertzea.</p>
3. Latinetik hizkuntza erromanikoetan eta euskarari izandako bilakaera fonetikoaren oinarriko arauak aplikatzea.	<p>3.1. Latinaren eragina Euskararen bilakaeran ezagutzea.</p> <p>3.2. Hizkuntza erromanikoetako osagai latindarrak Gaztelaniaz eta Euskaraz erabiltzen diren lexemak, atzizkiak eta aurrizkiak identifikatzea.</p>
4. Latinak euskarari izan duen eragina identifikatzea (maileguak), gaztelanien ondare-hitzak eta kultismoak identifikatzea eta gaztelanien eta euskarari latindar esamoldeak identifikatzea eta ulertzea hainbat testuinguru linguistikotan, irakurmena eta ahozko nahiz idatzizko espresioa hobetzeko.	<p>4.1. Latinismoak eta latinezko lokuzioak ezagutzea.</p> <p>4.2. Latinak euskarari egindako lexiko-ekarpena (mailegua) ezagutzea.</p>
5. Norberaren hizkuntzan lexiko kultua, zientifikoa eta teknikoa ulertzea osagarri etimologikoetan oinarrituta, ondarean izan duten eragina identifikatzeko eta balioesteko. Tradizio horrekiko jakin-minezko eta errespetuzko jarrera bultzatzeko, arrazoitzeko eta kritikatzeko ahalmena sortzea.	<p>5.1. Hitz-elkarketaren eta eratorpenaren prozesuak.</p>

6. Erromako kulturaren eta zibilizazioaren ezaugarri nagusiak ezagutzea, horiek gure kultura, arte eta erakunde ondarean izan duten eragina identifikatzeko eta baieesteko. Tradizio horrekiko jakin-minezko eta errespetuzko jarrera bultzatzeko, arrazoitzeko eta kritikatzeko ahalmena sortzea eta garapen indibidual nahiz kolektiboaren aldeko baliabide gisa erabiltzea, nork bere burua eta norbanako gisa bizi garen gizarte plurala hobeto ulertzeko.

6.1. Mitologia latindarra Literaturan eta arte plastikoetan eta ikus arteetan eragina ezagutzea.